### EGUN DA SANTI MAMIÑA

Egun da Santi Mamiña
benetan egun samiña
goiko zeruan gorde dezala
luzaro neure anima.

Esanen dizut egia
hau ez da usategia
erroi artean izan nintzaden
benetan ausategia

Itsas aldean izarra
hari begira lizarra
euskera salbo ikusi arte
eztut kenduko bizarra.

Kantatu zuen oilarrak
argitu dira belarrak
Ageda gure martiriari
moztu zizkaten bularrak.

Bularrak moztu zizkaten eta
Euskalerriak diotza
solomo luze dultzerik gabe
eman zaidazu bihotza.

Eman zaidazu bihotza eta
ken berriz naigabeak
esan noiz garen izanen gure
etorkizunen jabeak

### GOIZUETAN

Goizuetan bada gizon bat
deritzen zaio "trabuko"
itzak ederrak bihotza paltso
sekula etzaio faltako
egin dituan dilijentziak
berari zaizko damuko.

Ondo oroitu adi
zer egin uan Elaman,
difuntu horrek izandu balu
aidekorikan Lesakan
orain baiño len egongo itzan
ni orain nagoen atakan.

Nere andreak ekarri zuen
Aranaz'tikan dotea,
obe zukean ikusi ez balu
Berdabio'ko atea,
orain etzuen ark edukiko
dadukan pesadunbrea.

Nere buruaz eznaiz oroitzen
zeren eznaizen bakarra
azitzekoak or uzten ditut
bi seme ta iru alaba
Jaun zerukoak adi dezala
oien amaren negarra.

### URTSUA'KO KANTA

— "Goiti zazu burua,
ene arreba Juana."
— "Eztezaket goratu,
anai Batista jauna."
— "Izorra omen zara,
ene arreba Juana.
— "Zertan ezagun nauzu,
nere anaia jauna?"

Zazpi errota berri,
zortzi jauregi txuri:
Orien guziengatik
nik ez Urtsura nari.
— "Zaldia zelarekin
zuretzat iarria da."
— "Nik iten dudan aurra
zure besokoa izain da".

Urtsuan zazpi leio,
zazpiak lerro lerro;
Lantaina-ko alaba
Urtsuan defuntu dago.

### APUR DEZAGUN KATEA

Apur dezagun katea
kanta dezagun batera
hau da Fandango
Biba Berango.

Munduan beste asko lez
artaburua mozkorrez
atzo aspertu nintzaden
maisuez eta eskolez.

Poeta naizenez gero
ez dut zerurik espero
bederatzi kopla ditut
lau zuhur eta bost ero.

Hilargiaren adarra
handik zintzilik abarrak
gogoan sarriak dira
zure bi begi nabarrak.

Zerutik dator harria
nundikan berriz argia
gau ilun honetan dakuts
zure aurpegi garbia.

Artzoko oilar gorria
inundik ez etorria
gosea arintze arren
judu batek igorria.

Goizaldean eguzkiak
printzak daduzka bustiak
oso merke saltzen dira
euskaldunaren guztia.

Gure amonak esan dit
aitak ardoa edan dik
joan zaite tabernara
eta ekar zazu handik.

Euskararen asturua
ez da gauza segurua
askozez hobekiago
dago munduan judua.

Eta hau horrela ez bazan
sartu dedila kalabazan
ipui txit barregarriak
kontatu nituen plazan.

### MUNDUAREN ESKER ONA

Haize otzeko lurrera
biluzirik heldu zinaten
ezer gabe, dardarez,
andreak zapi bat ematen.

Premiazkoak izan gabe
zuentzat karrosarik ez ziraden
mundura arroztu zinaten
gogoko izan zuenean batek.

Munduak ez du zorrik zuekin
joateko libre zerate:
ezer ikusterik askokin
baiñan haurrak beti herabe.

Haize otzeko lurretik
zoldaz beterik ba zoazte
denek mundua maitaturik
lur puska bat izan ba duzute.

### LILLURAREN KONTRA

Lillurarik ez!
ez dago itzultzerik
eguna atean dago
haize otza dakar
ez da izango beste goizerik.

Tronpatzerik ez!
bizitza ez da uskeria,
edan ase arte beretik
ez da aski izango
galtzer zaudelarik.

Konsolatzerik ez!
denbora ez da luzea,
ustelak lurpera
bizitza da haundiena
galtzea, litzake galtzea dena.

### HAIKA MUTIL

Haika, mutil, jeiki hadi
argia den mira hadi!
Bai, nausia, argia da;
gure oilarra kanpoan da.

Haika, mutil, jeiki adi,
euria den mira hedi!
Bai, nausia, euria da,
gure orra busturia da.

Haika, mutil, jeiki hadi,
hortxat zer den mira hadi!
Bai, nausia, haizez da:
gure leioa ideki da.

Haika, mutil, jeiki hadi,
kanpoan zer den mira hadi!
Bai, nausia, elurra da;
lurra xuriz estali da.

Haika, mutil, jeiki hadi,
urean zer den mira hadi!
Bai, nausia, ardia da;
aspaldian itoa da.

Haika, mutil, jeiki hadi,
zer oinon den mira hadi!
Bai, nausia, egia da;
aspaldian itoa da.

Haika, mutil, jeiki hadi,
zer oinon den mira hadi!
Bai, nausia, egia da;
mutiltto hau unhatu da.

### ITURINGO AROTZA

Ituringo arotza, Erramun Joakin,
asarre omen zaude zeren degun jakin
santurik ez laiteke fiatu zurekin:
San Kristobal urtuta joalik egin.

Arotzak erran dio bere andreari:
"Hurtu behar dinagu; ekarran santu ori"
"Gizona, zertat zoaz? Bekatu da ori"
"Etzionagu erranen sekulan ni hori".

Ituringo garaile Ramuntxo Joakin
asarre omen zira zeren dudan jakin
konfesa zaite ongi erretorarekin:
ez dute zer fidatu santuek zurekin.

Kobrezko santurikan inon bazarete,
egoten al zarete emendik aparte;
baldin arotz oriek jakiten badute,
garien egiteko urtuko zaituzte.

### ZURE BEGIEK

Zure begiek
ene maitia
ba dute biek
dirdir eztia

Zeruko lore
miresgarriak
izarren pare
xoragarriak.

Gazte gaztia
zira oraino
egun guzia
nago zuri so.

Zure begiek
erotzen naute
eta guziek
nahi luzkete.

Gaua delarik
mundurat jauster.
Jauna zerutik
da urrikaltzen.

Zure begien
gozo hori
egon dadien
eder ta garbi.

Ene nahia
ziñez aundia
zu izatia
nere andria.

### ZILBOR-HESTEAK

Bi kate;
biak ebaki beharrezkoak
bat gorputzaren bizitzeko
bestea gogoaren askatzeko.

Adizu ama
sortze berean
zuri gorputzez
lotzen ninduen zilbor-hestea
sendagilleak nola ebaki zuen.
Lehengo eten beharra izan zen:
bizitzaren bizitzeko lehen legea.

Haurtzaroan
titia eman zenidan.
mutil-zaroan
eskoletara biali
bizitzarako harmak hartze arren.

Dana eskertzen dizut;
duen balore guztian,
nik ahal dutan neurrian.

Bainan, gaztaroan
amatxo maite!
ohar zaite,
benetan maite nauzun ama
izan nahi baduzu
eta nik zu maitatzea,
ez utzi bakarrik,
bultza behar nauzula.

Hau baita bide bakarra
biok alkar sanoki maitatzeko
biok alkar osoki eta betikoz maitatzeko;
zuk zure nortasunaz, nik nereaz:
zuk zure nortasunaz, nik nereaz,
Ama! eten dezagun
lehen gorputzarena bezela
orain, gogoaren zilbor-hestea.

### DENAK ALA IÑOR EZ

Gatibua; nork libratuko?
Leize zuloan daudenak ikusiko,
zure garraxiak adituko;
gatibuek zaituzte libratuko.

Denak ala iñor ez, dena ala ezer ez
Bakarka ezin da
fusillak ala kateak
denak ala iñor ez, dena ala ezer ez.

Gose zaudena; nork asetuko?
Ogia nahi duenari,
gose daudenek, ogia emango
bidea diote erakutsiko.

Galtzaille; nork mendekatuko?
zaurituekin alkartuz
guk zaurituek, zapalduek
zu zaitugu mendekatuko.

Gizon galdua; nork lagunduko?
miseria sofri ezin dutenak,
gaur ez bihar izan dadin eguna
galduekin gara alkartuko.

### GABERAKO ATERBEA

Konkatu didate Nueva York-en
Broadway eta 26 karrikaren kantoian
negu gorrian, gizon batek gabero
jendeari otoi eskatzen
aterbea billatzen duela
bilutsirik daudenentzat.

Mundua ez da era hortan aldatzen
gizonen artu-emanak ez dira hobekitzen,
zama-aroa ez da hola laburtzen.
Baiñan gizon batzuek gau batez, ohea dute:
aterbean, haize otzik ez, eta
bereri zijoakien elurra, karrikan ari da.

Liburuaren irakaspenik, ez ahantz gizona!
Gizon batzuek gau batez ohea dute;
aterbean, haize otzik ez, eta
bereri zijoakien elurra karrikan ari da,
Baiñan mundua ez da era hortan aldatzen,
Gizonen artu-emanak ez dira hobekitzen
zama-aroa, ez da hola laburtzen.

| A | | B | |
|---|---|---|---|
| EGUN DA SANTI MAMIÑA | 2,48 | HAIKA MUTIL | 2,20 |
| GOIZUETAN | 2,08 | ITURINGO AROTZA | 2,20 |
| URTSUAKO KANTA | 1,49 | ZURE BEGIEK | 2,00 |
| APUR DEZAGUN | 4,07 | ZILBOR HESTEAK | 3,02 |
| MUNDUAREN ESKER ONA | 2,18 | DENAK ALA IÑOR EZ | 3,21 |

elkar s.a.
ELK-HG-210
L.G. SS-676/87